

BITTOR IDIAZABAL

*Biotzak diraust bein ere ez dala
erri maite au galduko.
Erritasuna gorde badeza,
erri-lurraz jabetuko.*

ORIXE (Euskaldunak)

Aspaldi danik oso gaixorik zegoela jakin arren, bere erioztaren berriak min eman zidan. Ez zan erreza jasatzen, lana eta borrokako urte askok elkartzen bait ginduzten. Betiko abertzale jator eta zintzo, 76 urte zituela il zan 1985 eneko epaillaren ogeitaseiean. Gure erri ontan egon oi dan bere antzeko eguraldi zakar, gogor batez, egin genion azken agurra kanposantuan.

Beranduxeago BITTORRI buruz lerrokada batzuk OARSO-rako idazteko eskatu zidaten.

Zailla zait mandatu au betetzea, bere pausoen testigu, utzi zituen aztarnak ondo adieraztea ez bait da gauza erreza, beti dago gaizki egitearen arriskua eta. Arriskua, arrisku ekin egingo diot ba mandatuari eta nere gogorapenak eta sentimentuak lagun ditudalarik abiatuko naiz kronikaren barrera.

Ez dakit ondo gogoratzen deten ala gogoratu arazten didaten nola irten giñan BITTOR eta biok euskal-antzerki batean Errenderin guda aurrean. EAJko alderdikide zan eta garai artan gure kulturaz berjabetzeko eta zabaltzeko lan egiten zuen BITTOR gazteak. Garai artakoa da TXIRRITA bertsolariaren omenaldi eguneko argazki ain ezaguna. Bertan agertzen zaigu BITTOR antolatzaileenetako bat bezela. 1934 urtean MARTIN LEKUONA (fusilatua ilko zan apaiza), bere betiko lagun ziran KOLDO MITXELENA, ANDONI KORTA, XABIN LASA eta beste batzuekin JOCBA euskal sindikatu mogimendua aurrera ateratzen saiatu zen. Bere bizitza osoan PARROKIKO abesbatzako abeslaria izan zan. Gaztetandik mendizalea, luzaroan ibiliko zan mendian, esan dezakegu bere bizitza osoan.

Guda iritxi zan eta badirudi kontrako erabaki bat artzen duela. Ain errenderiar jator, erri zale izaki eta, ezagutzen ez ditudan arrazoi batzuegatik, ez du parte artzen errenderiarrez osatutako ITXARKUNDIA gudarostean. Guda, ARISTIMUNO gudarostean egiten du. Bere adiskide min dan XABIN LASAK dionez, betirako damutuko zan erabaki onetaz. Au batez ere geroari begira, ez bait zuen ospatzerik izango urteurrenik bere betiko adiskideekin. Ala eta guztiz ere, bere idealei jarraituz, ARISTIMUNO gudarostean guda egiten du.

Bere Erriak bezela, galdu egin zun noski.

Aur bat nintzalarik igeska nijoan bion familiarekin. Oraindik gogoan daukat, frentetik bueltan bere ama ikustera zetorrela ONDARRURA. An amaitu bait zan gure igesa. Nere aurzaroko gogorapenen artean bere irudia betirako markatua gelditu zitzaidan. Nere izeba Juanita eta Rexu negarrez ikusten nituen, jakin gabe, ulertu gabe, zergatik egiten zuten negar. Amaika malko ixuri zituzten BITTORRENGATIK, frentean borrokan ari bait zen!

Galtzailleen samintasunean itzuli giñan Errenderira. Orduantxe asi zitzaigun guda egin ez genuoi sufritzeko aldia. Errepresaliak, gure gudari galtzailleak fusilatua edo espetxaratuak... Orduan ulertu nituen nere izeba Juanitaren malkoak.

Oso gogoan daukat BITTOR itzuli zan eguna. Azkenean espetxetik irten eta Toledon «Batallón de trabajadores» delakoan egon ondoren, azkenean aske zetorren etxera. Berriz izeba Juanita negarrez, ez nuen ezer ulertzen.

Beranduago BITTOR eta JUANITAREN ezkontzak erritik aldendu arazten du, baiña ez urrutira. Oraingo ontan GAIN-TZARA doa, bertan Juanitak eskolan lan egiten du, maestra da, eta BITTORREK taller txiki bat du. Andoni bere anaiarekin bizipairu aldiz bisitatzera joaten gataizkio. Bisita aietaz detalle asko gogoan ditut. Gaintzako elizari lotuta gogoratzen dut, Organista eta koroaren zuzendaria bait da.

Juanitakin batera azitzen dituzte beren seme-alabak. An jaiotzen dira ARANTZA, ITZIAR eta MIKEL beren iru seme-alabak.

1961 ean itzultzen da betirako Errenderira. Maiz ikusten dut bere adiskide zaarrek, Xalbador ETXEBESTE, Xabin LASA, Andoni KORTA, Koldo MITXELENA... besteak beste.

Baña, guda galdua, guda ondorengo errepresaliak eta sufri-mentuak ez ziran naikoak izan gure BITTORREN idealak itzaltzeko.

1963ean JOSE ARANBARRI, Iñaki URKIA eta Patxi MARITXALARekin ERRENDERIKO ORERETA 'IKAS-TOLA sortzen dute. Bera izango da ikastolaren muin eta ardatza, bai eta bere lenbiziko lendakaria. Bere ekintzen artean au izango bat da, bear bada, ekintzarik nagusia. Emen ezagutu nuen benetan. Sortu eta denbora puska batera bere ondora deitu nindun taldean lana egiteko. Urrengo amazapi urtetan elkarrekin arituko giñan.

Ez ziran urte errezak izan, ez bait ziran elkarren arteko arremanak gozoak... Idealista on bati zegokion bezela, zeatza, gogorra, konfiantza gutxikoa eta nekagaitza zan gure BITTOR.

Bere seme-alabekin zoriona, saria bear bada, izan zuen berarekin bat egotean, bere idealekin batera, alegia. Orri esker ikastolaren oñarria, zutabea bere alaba ARANTZA izango zan. Gogoz kontra ixilduko naiz une ontan, bere etxean bezela ARANTZAK ez bait du entzun nai losintxarik, arrazoidunak baldin badira ere. Era guztietako oztopoak gaudituz bearrean aurkitu giñan, diru, lege, ideoloji eta abar izan ziran arazo nagusienak. Amaitu eziñeko tentsioan bizitzen gera, bera da euskarria eta ardatza, bere etengabeko lanak mantentzen gaitu elkar. Orra or ondorioa... Ainbeste lan, neke, ideal bizirik mantentzeak, bere ondorioak emango ditu gaurko egunean ikusi dezakegun bezela.

Egokia iruditu zitzaioenean utzi zuen lendakaritza. Bere jarraitzailea izateko oorea izan nuen.

1984eneko Abenduaren iruan omenaldi bat eskeñi genion, egia esan ez dakit ondo, garaiz ala beranduegi zan, eta bere izena betirako gogora araziko zuen plaka bat jarri genion ikastolan. Bere gaisotasuna gero eta larriago izan arren, oi zuen bezela indarrak utsetik atereaz etorri zan omenaldia. Neurri batean, pozik gaude nolabait adierazi aal izan diogulako gure eskerrik beroena.

Andik gutxira bere gaisotasuna gaiztotu egin zitzaion. Erioztaren aurrean, bisitza osoan zear izan zuen trinkotasun eta argitasun berberak izan zituen.

Gure ezezagun dan geroan, gure erri onek bere antzeko gizon kementsuak balitu, bear bada itxaropentsu izango giñake gaur egun.

Kristau zintzoa, bere sinismenak bete zaizkiolakoan, bego lasaitunez betiko atsedenean.

ERRIONDO'TAR MIKEL